

uk

136. zenbakia / 2008 apirilak 21





IKASGEHI

Eskolaz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko hitzarmena

Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten akademiak: *Academia Salsidu / Academia Gobelondo / Academia Colectivo Romo / Nagore Etxebarri / Bidean / Centro de estudios Elipse / Centro de estudios Ernesto / Centro de estudios Cima / Aula 10 / Academia Avances / Soinu Musika Eskola / Talde Zeramika / Estudio de danza Ana Lara / Hobby & Art / Kid hizkuntza etxea / Areetako Uztarri umeen Euskaltegia / Algortako Uztarri umeen Euskaltegia / Getxoko Uztarri umeen Euskaltegia / Andres Isasi Musika Eskola / Taldea sortzen bada zerbitzua euskaraz eskainiko duten akademiak: Estudio de ballet Carmen Vera / Casa Italia / Escuela de Música Yamaha / Euskara sustatzeko konpromisoren bat hartu duten akademiak: Academia Cebe / Dantzarte / Academia de Arte Luis Luengo (Dora's Arte) / Escuela de joyeria Serralta / Riff / Dover idiomas / Concord idiomas / International Don't.*

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Euskal Herriko Itzulia Erandion, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko Maidanetik bista, 1994-2008.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Maite Ibarbengoechea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxomoda 2008.
28. ARGAZKIA. Ardiak Getxoko Andra Mari elizan, 1970.
30. BERBETAN. Iñaki Barcena, Zuberoa Iturburu.
34. FOTOGRAFIA. Erandioko mendigoizaleak, Abazpe Mendi Taldea.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Un poco de chocolate* filma.
43. MUSIKA. Getxo Jazz. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Odola aztoratzeko poemak. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Athletic eta Getxo Kirolak gaztetxoak trebatzen.
46. ELKARRIZKETA. Zalao Lopez de Munain.


AMAITZEKO

49. NON JAN. Getxoko batzokia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Areetako San Agustin ikastetxea 1961, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Naroa Iturri, Ander P. Goikoetxea.

AZALEAN: Abazpe Mendi Taldea, 1956



30 Iñaki Barcena



11 Maite Ibarbengoechea

Berbetan

Zientzia Politikoetako irakaslea da EHU. Aldi berean, Euskal Herria porlanaren herri bihurtu ez dadin lan egiten du Ekologistan Martxan.



34 Erandioko mendigoizaleak



46 Zalao Lopez de Munain



54 Naroa Iturri



14 Ana Rosa Tercero



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak


www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILIA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentbaca
TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
KOLABORATZAILIAK: Bitor Egurola, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkarte.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILIAK



gugeu

Elias Amezaga

Edizioa ixtear geundela, berri txarra heldu zaigu UKra. Elias Amezaga, Getxoko laguna, joan egin zaigu, gaixotasun luzea jasan eta gero. 86 urte zituela esan digu agur “Dorreko idazleak” (Muru menditik hurbil dagoen dorretxean bizi zelako deitzen zuten horrela).

Bederatzi seme-alaben aita bazen ere, ez zuen sekula bere pasioa alde batera utzi; idaztea, hain zuzen ere. Egin, Deia, Gara eta beste hainbat egunkari eta aldizkariren kolaboratzailea zen. Historia eta politika gaiak zituen mintzagai gehienetan. Antzerkigintzan ere lan ederra egin zuen, 100 lanetik gora taularatu. 50 eta 60ko hamarkadetan, “Academia Errante” delakoan parte hartu zuen Nestor Basterretxea eta beste askorekin batera, euskal identitatea aldarrikatuz Francoren diktadurapean. Lerro hauetatik omenaldi xume bat berarentzat.

Agur Elias, ikusi arte!

UK-ko lantaldea

egon ginen > bertsoafaria algortako sagardotegian




Espero zen bezala eta kartela ikusita, Fredi Paiak eta Andoni Egañak ez zuten hutsik egin eta apirilaren 11n bertsozaleen bertso-gosea (ala egarria?) ondo baino hobeto ase zuten. Ozta-ozta sartu zen Algortako sagardotegiko jantokian bertaratu zen lagun mordoa.



gure posta elektronikoa


uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



ERANDIO, 2008KO APRILAREN 9A

Euskal Herriko Itzulia Erandion / Uribe Kostari ere egin zion Euskal Herriko Itzuliak begi-keinoa aurtan, 2. etaparen amaierak Erandio Goikoan izan zuen helmuga eta 3.aren hasiera udalerriko Legazpi kalean izan zen. 2. etapan Iñigo Landaluze getxoztarrari begira egon ziren euskal txirrindularitazaleen bihotzak, baina azkenean ezin. Hirugarren etapako (Erandio-Viana) 195 km-ak azkarren bete zituena David Herrero bilbotarra izan zen; Euskal Herriko Itzulian lortzen duen lehenengo garaipena da. Txirrindularitza... Ez du futbolak bezainbat argirik erakartzen, ezta dirutzarik ere, kirol gogorrik bada berori da bat, ziur! Gaurkoan, gure animoak eta bultzadarik gogotsuenak eurentzat dira! *Gogoko lekuan aldarrik ez!* ○ / Argazkia: **Asier Mentbaca**



OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ

Euskara Zerbitzuak zorion-txartel, gonbidapen edota origami ereduak batzen dituen liburuxka argitaratu du. Liburuxka kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu iragarki honetan agertzen diren inprentetara. Udalaren web gunean ere aurkituko duzu: www.getxo.net

ESTABLEZIMENDUA


ARGAZKI LUR VILLAMONTE
LIBRERÍA ZUGATZARTE
NORAY LIBURUDENDA
KALKO INPRENTA
ARNAGA
BEHIN BATEAN
BOLIVAR ELORDUI LIBURUDENDA
CIANOPLAN
COSAS
EUSKAL COLOR
FOTO IÑAKI
FOTO RICARDO
FOTO Y PAPEL
FOTOCOPIAS KISER
IMPRENTA ARENAS
ITXAS-IKUS
KOPRINTER
LADREDO HERMANOS
LIBRERÍA ITZIAR
LIBRERÍA MAYOR 29
LIBRERÍA NADAL
LIBROS PAPELERIA ANA M^º BOLOIX
PROPLANOS KOPISTERIA

TELEFONOA

944.30.27.71
944.60.33.21
944.91.44.43
944.91.29.83
944.60.79.32
944.30.74.03
944.63.90.98
944.64.85.72
944.30.37.86
944.63.32.33
944.30.67.04
944.60.80.04
944.91.22.44
944.64.73.37
944.63.84.23
944.91.14.27
944.06.05.95
944.63.91.75
944.30.73.26
944.80.01.21
944.63.62.45
944.30.04.08
944.30.92.03



[lehen]



ASERMENTXAKA

[orain]



ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO MAIDANETIK BISTA 1994-2008

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bagara bi



Erandio 2007ko azaroa

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Gure lurrean hedatua da

Nerbioi ertzetik ikusi eta
hasi natzaio kantari
inoiz Bizkaiko Labe garaien
besoa izan zenari,
hustuta barku ugari
ez zaude ni bezain nagi:
hainbeste urtez eutsi ondoren
gure etxeko zamari,
haurrak egin ziren handi,
ulertzen zaitut, garabi,
ni ere orain alperrik nabil...
behintzat orain bagara bi.

Gaur belaniko biziagatik
oraindik zaude zutunik,
horretan inork ez du esango
meriturik ez duzunik;
nik ez dut zure kemenik
Jaungoiko jaunak oraindik
ez nau berera dei egin baina
bere zain nago jadanik...
Gauetz etxera joanik
zer huts sentitzen dudak nik!
Zurekin ere egongo nintzen
moralá altxa ezinik.

Nahiz loa beti izan den nire
etsipenaren estalpe,
goizeko lehen eguzki printzek
loa urratzen didate,
jaiki orduko jo ta ke
nabil etxetik aparte,
orga hartuta paseatzen dut
kalez kale, atez ate
eta denbora bitarte
hala ibiliko da Maite
zeruetara igoko duen
garabia heldu arte.

euskara > euskararen Getxoko aholku batzordea eraberritu dute



Hizkuntza-normalkuntzan eragina duten 11 andre-gizon daude batzordean

Otsailean kaleratu zuen Getxoko Udalak Euskara Biziberritzeko II. Plana, 2011. urtera arte martxan egongo dena. Honen helburu nagusia, *“euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak ematea eta behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea”* da. Planaren gizarteratze lanetan laguntzeko, Getxoko Aholku Batzordea eraberritu ere egin dute, egoera eta errealitate berriari egokitzea errazteko asmoz. 13 partaide izango ditu batzordeak: Imanol Landa Getxoko alkatea, Koldo Iturbe Euskara Zinegotzia, euskara teknikari biak eta udalerriaren hizkuntza-normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsua diren 11 andre-gizon. Dirulaguntzen gaineko iritzia eman, Planaren garapen egokirako aholkuak eman eta euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusia duten gaiak aztertuko dituzte, besteak beste. ○

kantuketan > jende andana hurbildu zen Algortako Portu Zaharrera



Giro ezin hobea sortu zen Latzen eta Lor euskal taldeen kontzertuan

Apirilaren 5ean ospatu zen Portu Zaharrean Kantuketan jaialdiaren XI. edizioa. Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak euskal taldeak bultzatzeko eta euskal musikaren munduan dagoen aniztasuna azpimarratzeko antolatutako jaia dugu Kantuketan. Fermin Muguruza, Betagarri, Benito Lertxundi eta Ken7 bezalako talde eta bakarlariak entzun ahal izan ditugu urte hauetan, beste askorekin batera. Aurten LOR Elorrioko taldearen eta Latzen talde mitikoaren musika entzun ahal izan dugu. Bigarren honek bere azken kontzertua eman zuen Algortan “Infernuko Ateetan Tour” agurra biraren barruan. Oso pozik gelditu ziren Oñatikoak; izan ere, Uribe Kosta osotik etorritako jende andana bildu zen portuan eta giro ezin hobea sortu zen kontzertuan. ○



BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

saiaz getaria

HOTEL

Roke Deuna
25
280808
Getaria



..haria
...lehengo garaik...
...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

moda > zapatila egin diote Alain Goikoetxea skaterrari



Merezitako omenaldia egin gura izan diote Alain Goikoetxea patinatzaile getxotarrari. Arrigunagako “kanteran” emandako orduak ez dira debaldekoak izan eta, gaur egun, munduko patinatzaile onenen artean dago Goikoetxea. Hori dela eta, bere zapatila diseinatzeko ordua heldu zaiola erabaki du azken urteetan babesle izan duen Adio markak. Beltzak eta larruzkoak, bere gustura diseinatu ditu: *“Horrelako zapatilak erabiltzen ditut patinean ibiltzeko”*. Hala ere, ez dira hauek berezi egiten dituen ezaugarria. Izan ere, barne-zoletan, Arrigunagako skate pistako irudi bat jarri du: *“Bertan hazi eta bezi naz. Nirekin doan zerbait da”*. Bere zapatila duen euskal kirolari bakarra da. Zorritzarrez, askotan ez zaio merezi duen arreta ematen patinajeari, nahiz eta eskualdean puntako patinatzaileak ditugun. Martxoan egin zen zapatilaren aurkezpena Algortako Kakoren dendan antolatutako lagunarteko jaietan eta dagoeneko, 5000 ale daude merkatuan salgai. ○

Goian, Alain Goikoetxea; behen, Alain bere lagunekin aurkezpen egunean; ezkerrean, Alainen zapatila. (Beheko argazkiak: Argiñe Olasagarre)



[erretratu]



“Moda telebistan agertzen dena baino askoz gehiago da; gizartearen aldaketekin bat joan behar du”

Maite Ibarbengoechea > Getxo enpresa eta merkataritza

Historia ikasketak egin baditu ere, azken 27 urteak modaren munduan behar eman ditu Maite Ibarbengoecheak. Bere alabarekin batera Hormaecha enpresa sortu zuen 1987. urtean, euren diseinuak saltzeko helburuz. Moda komunikabideetan agertzen den fribolitatea baino askoz gehiago da Maitearentzat: *“Gizartearen ematen diren aldaketekin bat joan behar du. Krisi garaietan aurrera ateratzeko, adibidez, ideia berriak jarri behar dira martxan; garai txarretan ikusten da zein den profesional ona”*. Azken urtean, Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartearen lehendakaria izan da: *“Urteak neramatzan kide moduan eta erretiroa hurbil neukala ikusita eta denbora libre gehiago izango nuelakoan, lehendakari izatea proposatu zidaten”*. Krisi garaietan zaila da Getxoko merkataritza aurrera ateratzea: *“Errealitatea gordina da. Gaur egun, beste era batean pentsatu behar da, etengabe berritzen egon behar dugu”*. Hala ere, herriko dendari eta enpresariengan konfiantza handia dauka: *“Turismoak asko lagunduko duelakoan nago”*. Elkarteko lehendakaria den heinean, edonori laguntzeko prest agertzen da: *“Herritarren, erakundeen eta merkatarien elkarlana garrantzitsua da. Garai txarretan ere, hor egoten saiatzen gara elkarteko lagunak eta alde materialaz gain, humanoa lantzeari garrantzi handia ematen diogu”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Karteak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
- ermarkaketak •



Gazteen zerbitzura

Gazteria Zerbitzuak iragan urterako aurreikusitako 15 helburu estrategikoetatik 11 burutu ditu eta **iaz Gazte Bulegora 4.400 lagun baino gehiago** hurreratu ziren informazio eske

Getxoko Udaleko Gazte Zerbitzuak 2007rako aurreikusi zituen helburu estrategikoen %74 erdietsi zituen. Zerbitzuaren ardurapean dagoen Gazte Informazio Bulegoaren (GIB) erabiltzaileen erdia baino gehiago andrazkoak izan ziren eta 35 urtetik gorako adin taldekoak izan ziren Tangora Etxera (bertan dago GIB) gehien hurbildu zirenak.

Pasa den urteko jardunaldiaren gaineko Memoria aurkeztu berri du Gazte Zerbitzuak. Ondorioztatu dutenez, aurreikusitako 15 helburu estrategikoetatik 11 bete zituzten (%74), 3 atzeratu behar izan dituzte eta beste 3 ez zituzten guztiz burutu. Gazteria Zerbitzuko teknikari Unai Amezagak adierazi legez, *“urteko balantzea oso ona da; proiektu estrategiko berriak martxan jarri ahal izan direlako, esaterako: Areetako ludoteka, Euskara Zerbitzuarekin. 12 urtetik behenakoentzako eskaintza areagotze aldera ere lehen aldiz tailer bat antolatu da, skate tailerra, eta oso harrera ona izan du. Bestalde, Gizarte Zerbitzuarekin lankidetzan, arriskuen prebentzioaren kaleko programa bat martxan jarri da. Ondo balantzeko moduko beste alderdi bat, beraz, gainerako udal zerbitzuekiko lankidetzara da, betidanik lehen mailako helburua izan dena”*.

Bestalde, GIBra 4.420 lagun hurbildu ziren 2007an zehar, horietatik 2.919 andrazkoak izan ziren, eta bertaratutakoetatik 1.255ek bakarrik egin zuten euren eskaera euskaraz. Eskatu zuten informazio gehiena bidaien ingurukoa izan zen, eta horren ostean, aisialdiaren eta enpleguaren ingurukoa.



Algortako Etorbideko 98. zenbakian, Tangora Etxean, dago Gazte Informazio Bulegoa

Eskaintzen duten informazioa jasotzeko zerbitzura 80 lagun berri sartu dira eta guztira dagoeneko 330 lagun daude izen emanda, hau da, gazte horiek Gazte Zerbitzuak eta GIBk antolatzen dituzten ekintzen edota dauden egitasmoen berri jasotzen dute sms, e-postaz edota posta arruntez.

«Inoiz baino ikastaro eta lantegi gehiago eskaini zituzten iaz»

Iaz inoiz baino lantegi eta ikastaro gehiago antolatu zituzten, 24 guztira eta horietan 260 lagunek parte hartu zuten. Partehartzaile gehienak emakumezkoak izan ziren (%66) eta erdia euskaldunak.

Horrez gainera, beste ekimen batzuk ere prestatu zituen Gazte Zerbitzuak, beste udal zerbitzuakaz edota herriko gazte elkarteakaz batera, berbarako: Zinegoak jaialdi-

ko hainbat filmen emanaldia, Klik eta klik programa, Blogstival jaialdia, graffiti eta kultur arteko egitasmoa... Bestalde, udalerriko hainbat gazte talderen artean 26.000 euroko diru laguntza banatu zuten.

Aurtengo asmoen artean dituzte, Amezagak dioenez: *“Atzeratutako helburuak betetzeaz gain, bestelako proiektu interesgarri batzuk dauzkagu eskuartean, hala nola, Erromoko Gazteleku edo Algortako Ludoteka. Getxoko gazte intereseko elkarten eta, oro har, gazteen ekimenen sustapena lantzen ere jarraituko dugu”*. ○

Datu batzuk

- **Ikastaro eta lantegiak:** guztira 24 eta 260 lagunek hartu zuten parte.
- **Gazte Zerbitzua:** 94 466 00 18
- **Harremanetarako:** 94 491 01 14 edo gaztebulegoa@getxo.net

Saharar umeak udan etxean hartu gura dituztenentzat zabalik dago eskaera-epea



Haur bi Tindoufeko errefuxiatu kanpamenduetan

Atfalek (Sahararen aldeko Getxoko elkarte) eta Getxoko Udalak urtero legez “Oporrak bakean” ekimena martxan ipini dute dagoeneko. 12-15 ume sahararrek uda udalerrian igaro dezaten familien bila dabilta, hau da, Arjeliako Tindoufeko errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren 7-12 urte bitarteko haur sahararrek uda garaian (uztaila eta abuztua) etxean jaso gura dituzten familiek horretarako eskaera egin dezakete daborduko. Haur horiei bizi duten bizitza gogorretik aldi batez irteteko aukera emateko, euren osasuna zaintzeko eta zelanbait hobetzeko aukera eduki dezaten eta beste errealitate bat ezagut dezaten aukera eskaini gura dieten familiek maiatzaren 10era arte dute izena emateko parada.

Ekimen honek herritarrek kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko helburua ere badu, saharar herriak bizi duen egoera eta bizi-bal-

dintza latzak ezagut ditzagun, eta saharar kulturaren eta erlijioaren ezagutzan sakontzeko aukera itzela ere bada. Haur sahararrek etxean hartzeko familiek bete behar duten baldintza bakarra oporraldi tarte horretan atzerria ez bidaiatzea da. Bestalde, Udalaren ardura izango da umeen joan-etorria ordaintzea, eta eurentzako ekipamenduak (txanoak, bainujantziak...), begiraleak eta ekitaldi zein txangoak ere ordainduko ditu.

Orain dela dozena bat urte inguru hasi zen Udala ekimen honegaz, eta 1999tik Atfal elkarteagaz elkarlanean daroa aurrera. Hala, bitarte horretan 118 ume sahararrek izan dute aukera uda Getxo aldean pasatzeko, eta denbora tarte horretan Udalak guztira ia 122.000 euro bideratu izan ditu. ○

Harremanetarako:
685 751 359
atfalgetxo@gmail.com

KATU ETA TXAKURRAK ETXEAN HARTZEKO KANPAINA

“Lagun Egiteko” Animalientzako Udala Zerbitzuan dauden txakurrak eta katuak etxean hartzeko kanpaina martxan dago. Ekimenaren gaineko informazioa zabalitzeko 32.000 eskuorri banatuko dituzte eta hedabideetan iragarkiak ipiniko dituzte. Animalien bat etxean hartzea erabakitzen duenak bizkarroiak kenduta, txertatuta, antzututa, garbi eta mikrotxipagaz jasoko du. Eskaria Sopelako Gatzarriñe kaleko 36. zenbakian dagoen egoitzan egin daiteke edota telefonoz deituz; katuarengatik 30 euroko eta txakurrengatik 60 euroko udal tasa ordaindu behar dira.

Harremanetarako: 94 676 55 79

FILATELIA ELKARTEAK 25 URTE BETEKO DITU

Zilarrezko ezteiak ospatuko ditu aurtengo Getxoko Filatelia elkarteak eta urteroko filatelia erakusketaz gainera, aurtengo beste hainbat gairi buruzko bildumen erakusketa ere prestatuko du, berbarako: telefono txartelak, pinak, txanponak, loteria kupoiak etab. Erakusketa maiatzaren 5etik 10era egongo da ikusgai Villamonten. Bestalde, maiatzaren 5ean eta 6an (17:00-21:00) elkarteak sortzen duen zigilu berezi batez gutunei, postalei etab. zigilu-marka jartzeko aukera ere eskainiko dute.

PORTU ZAHARRERAKO PASEALEKUA EZBAIAN

La Olatik Portu Zaharrera doan pasealekua zabalitzeko egitasmoa legearen barruan dagoen birbegiratu beharko du Getxoko Udalak, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegi batek hala agindu duelako. Proiektuak hasieratik piztu zuen eztabaida, Getxo Bizia plataformak deuseztasun-akzio bat aurkeztu zuen, proiektuak hainbat lege ez ei zituelako betetzen. Orduan epategiek Udalak emandako argudioak nahikotzat jo eta ez zuen onartu akzio hura. Plataformak errekurtsio bat jarri zuen eta orain onartu egin dute. Dena dela, Udalak apelazio errekurtsio bat aurkez dezake oraindik.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Ainguruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

moda gaztea
opariak
IRATI
Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Ana Rosa Tercero > Danza Getxo kultur elkarteko kidea

“Dantza Eguneko ekitaldian estilo ezberdineko 19 koreografia ikusteko aukera egongo da”



Danza Getxoko informazio gehiago: beatrizwo.wordpress.com

Bost urte dira udalerriko hainbat dantza profesional bildu eta Danza Getxo kultur elkarte sortu zutenetik. 50tik gorako bazkidek osatzen dute elkarte: profesionalak, ikasleak, horien gurasoak, dantza zaletuak etab. Elkarteak oraintsu argitaratu ditu *Coadernos de Danza* bilduma didaktikoko lehenengo 2 zenbakiak eta laster kaleratuko ditu beste bi. Nazioarteko Dantza Eguna (hilak 27) ospatzeko ekitaldia ere prest dute.

—Zein helburu du *Cuadernos de Danza* bildumak?

—Argitaratutako eskaera asko jaso dugu, Espainiatik, Iberoamerikatik, Suitzatik etab. Dantzaren gaineko argitalpen gutxi daude gaztelaniaz, ingelesez asko, baina gaztelaniaz ezer gutxi; eta ikasleek beharrezkoa dute material hori euren prestakuntzarako. Beste bi zenbaki prestatzen gabiltza, ziurrenik ekainean plazaratuko ditugu. Bata dantzaren pedagogiaren ingurukoa da, dantza irakasleek eta irakasle-eskoletakoek (haur hezkuntza, musika hezkuntza etab.) “Dantza eta prestakuntza erritmikoa” irakasgaia ematen dutenez, bada beharrezkoa zuten material hau. Bestea, dantzarien trantsizioari buruzkoa da, eszenatokiak uzten dituztene-

an zein aukera dituzten azaltzen du: koreografoak izatea, irakasle, dantza-ikerikuntza... Trantsizio hori bizi izan duten euskal dantzari ezagunei egindako elkarrizketak ere sartu ditugu, berbarako: Blanca Arrietarenak edota Andoni Arestirenak. Hau guztia ezin izango genuke bakarrik egin, Aldundiaren eta Jauriaritzaren diru-laguntza barik.

—Bosgarren urteurrena duzue aurten.

—Elkatea Getxoko Dantza Eskolan jaio zen, konturatu ginelako eskola pribatu batek ezin genituela gauza asko egin, ez geneukalako erakundearen laguntzarik. Ikasleen prestakuntzarako zerbitzu gehiago eman ahal izateko, irakasleen prestakuntza hobeto lantzeko, dantza giroa sortzeko etab. pentsatu genuen biderik egokiena kultur elkarte

bat sortzea zela. Hastapenetatik kezkatu gaituzte mundu honetan dauden beharrek, esaterako, material eta liburuen faltak edota ikastaroak-eta egitera kanpora joan behar izateak, eta horiek asetzeko bideak. Azken hutsune hori betetzeko asmoz-edo hasi ginen antolatzen Getxo Dantza jardunaldiak Gabonetan; otu zitzaigun gu joan baino, profesionalak ekarri genitzakeela hona, eta hala!

—Zer antolatu duzue Dantza Egunerako?

—2004tik antolatzen dugu ekitaldia. Udalerriko dantza eskolei luzatu genien proposamena eta ia denek hartu zuten parte, eta hainbat profesionalak ere. Estilo ezberdinetako koreografiak prestatzen dituzte: klasikoa,

«San Nikolas plazan egingo da Dantza Eguneko ekitaldia (11:30)»

garaikidea, jazza, flamenkoa, hip-hop, ekialdekoa, saltsa, aretoko dantza etab. Ederra da, udalerrian eskaintzen diren dantza estilo guztiak ikusteko aukera delako. Aurten 19 bat koreografia egongo dira ikusgai, 14 bat profesionalenak; eta birak deituriko ikuskizunak ere egongo dira ikusleek ere parte har dezaten. Unescoren Dantzaren Nazioarteko Batzordeak (CID) egindako deialdiari erantzunez antolatzen dugu; urtero dantzari batek bidaltzen du egun horretarako mezua, aurten Alkis Rafisek egin du, oinarrian hau dio: dantzariak CIDera bazkideztara gonbidatzen ditu, izan ere, dantzaren munduan norbanakotasun handia dago, eta kolektiboki gutxi egiten da; bere ideia gauzak batera egitea da, dantzaren onerako. Dantza barruko eszenatokitatik ateratzea ere eskatzen dute, jendeari hurbiltzeko, horregatik San Nikolas plazan egiten dugu; bestalde, tamalez, Dantzaren Gala aurten ere ez dugu egingo, Getxo Antzokia botatzear daudelako. ○

Liburu azoka

Euskal Mitologia hartuko du gaitzat aurtengo merkatuak **hilaren 23tik 26ra bitartean**



Hurrengo ordutegian egongo da azoka zabalik: 11:00-14:00 eta 17:00-21:00

Nazioarteko Liburu Egunean, hilak 23, hasiko da Getxoko Liburu Azoka eta handik eta zapatura arte, Algortako Geltoki plaza izango da liburuen eta irakurleen arteko topagunea. Halere, daborduko irakurzaletasunaren inguruan ekitaldi andana egin dira Getxon, *Apirila liburuen Hilabetea* ekimenaren barruan. Horren albotik, azokak atek zabaltzeko aurreko egunean (19:00, San Nikolaseko liburutegian) liburu-aurrezpena antolatu dute, Jose Mari Beascochearen *Propiedad, Burguesia y territorio: La conformacion urbana de Getxo en la Ría de Bilbao (1850-1900)* liburuarena, hain zuzen ere. Bestalde, urtero legez udal liburutegiek eta udalerriko 10 liburutegien euren txokoa izango dute azokan eta liburuen prezioari %10eko beherapena egingo diete. Ohi legez, gai baten inguruan antolatuko dute azoka eta aurten aukeratu duten gaia Euskal Mitologia da; horren inguruan lantegiak, makillaje txokoa, jolasak, eskulanak, marrazkiak etab. prestatuko dituzte. Horrez gainera, Getxoko antzinako argazkien erakusketa ere egongo da ikusgai, Getxoko eskoletako ikasleen jendaurreko irakurketagaz ere gozatu ahal da, eta antzerki (hilak 25) eta ipuin-kontalarien (hilak 26) ikuskizunak ere egongo dira (euskaraz eta gaztelaniaz). ○

PIO LINDEGAARDEN OMENEZKO KONTZERTUA

Urtero-urtero Getxoko Jazzaldiak antolatzen duen Pio Lindegarden omenezko jazz entzunaldia hilaren 26an izango da (20:00) Andres Isasi Musika Eskolan. Aurten Marc Copland-Greg Osby laukoteak eskainiko du kontzertua eta sarrerak 12 euro balio du. Lindegarden, Zornotzako danimarkarra, jazzaren zale eta bultzatzaile amorratua izan zen, baita Getxoko Jazzaldiko laguntzaile eta sustatzaile kantsaezina ere.

II. ZURE MINTZALDIA LEHIAKETA PREST

Aurreko urtean izandako harrera ona dela eta, Areeta Kultur Elkarteak aurten ere *Zure Mintzaldia* literatura lehiaketa antolatzea erabaki du. Lanek laburrak izan behar dute, ipuinak, gehienez 3 orrialdekoak. Partehartzea adinaren arabera banatzen da, hala: A taldean 10-14 urte bitartekoak lehiatuko dira, B taldean 15-18 urte artekoak, C-n 19-40 urtekoak eta D-n 41 urtetik gorakoak. Lehengo bi taldeetako irabazleek 100 euro eta MP4 bateko saria jasoko dute, eta beste taldekoek 250 euro. Aurtengo aukeraturako gaia hurrengoa da: “kultura guztietara zabaltzen den herria”. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 16a izango da, eta ipuinak bidaltzeko bi modu daude: posta arruntez (Bidebarrieta 4, 48930 Areeta) edota e-postaz (behean).

Izena emateko eta informazio gehiago:
zuremintzaldia2@gmail.com
zuremintzaldia2.blogspot.com

BERTAN BEHERA LOTU DA GUAITOTEN EKINTZA

Algortar Lagunen Guaitos elkarteak maiatzaren 1ean antolatu asmo zituen futbol partidak (aspaldian herrian egiten zen “ehiztari eta arrantzaleen” arteko partida berreskuratzeko helburuagaz) eta ekitaldiak bertan behera lotu dira. Halere, egun horretarako bazkari bat antolatu dute (15 euro) Algortako Piper’s Irish Pubean (taberna eman daiteke izena); batuko den dirua Portu Zaharreko mojetzat izango da.

Izena emateko: sotavento@euskalnet.net



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Bea Resa > Margolari Gazteen Txapelketaren antolatzailea

“Aurten 14 eta 17 urte bitartekoei zuzendutako sari berri bat banatuko dugu”

Maiatzaren 11n Margolari Gazteen XI. Saria ospatuko da. 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako txapelketa honetan parte hartu gura duenak egun berean zortzietan eman behar du izena eta eguerdiko hirurak aldera, aldiz, lana aurkeztu.



Argazkian, Bea Resa

—Nolatan ba bururatu zitzaizuen duela hamaika urte horrelako txapelketa egitea?

—Leioan betidanik antolatu izan ditugu margolari ikastaroak, ondorioz, egokia iruditu zitzaigun Kultur Leioako ikasleen eta unibertsitateko Arte Ederretako ikasleen artean txapelketa antolatzea.

—Margolari asko al daude Leioan?

—Bai, badaude, baina ez dira profesionalak, zaletasun gisa dute margoztea. Margolari gisa bizitzea zaila da; Kultur Leioan bertan, badugu margolari bat, Julio Hernandez, eta bere asmoa margolaritzaz bizitzea da, baina hori ezinezkoa denez, klaseak ere ematen ditu. Bestalde, urtero 40 bat lagunek parte hartu izan dute txapelketan orain arte.

—Txapelketan margozteko gai edota teknikaren bat al dago?

—Ez, gaia librea da. Beno, Leioari dagokion zezoz agertu behar da, noski. Esaterako, iaz

irabazi zuen margoak jada egun ez dugun ospitalea zen. Teknikari dagokionez, hau ere librea da, edozein erabil daiteke.

—Zeintzuk dira sariak?

—Lehenengoak 810 euro irabaziko ditu; bigarrenak 510 euro; eta azkenik, hirugarrenak 360 euro. Baina beste bi sari berezi ditugu: aurten atera berri duguna, alegia, 14 eta 17 urte bitartekoei zuzenduta dagoen saria, eta bestetik, Leioako margolari onenari dago-kiona. Sari berri hori jarri dugu zeren eta 14-

35 urte bitarteko gazteei zuzendutako txapelketa izan arren, antzeman baitugu 14-17 adin tarteko gazteek ez dutela parte hartzen; hori bultzatu nahian sari berri bat banatuko dugu. Lehiaketaren ostean, margo guztiak erakusketa bat burutuko dugu Erakusketa Aretoan. —Leioaztarrek margoak ikusi eta kontsumitzen al dituzte?

—Bai. Erakusketa Aretoan askotan jartzen ditugu eta jende andana hurbiltzen da margo ezberdinak ikustera. ○

Erroldatzeko ekimena

Erroldatzea eskubide eta betebeharrak da lelopean kanpaina abian jarri du Leioako udalak



Gaur egun 30.011 herritar erroldatuta daude Leioan

Leioako udalak erroldatzearen aldeko kanpaina abian jarri du, leioaztar guztiak “erroldatzeko duten eskubidea eta betebeharrak” oharrarazi nahian. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailaren menpe dagoen Inmigratio Zuzendaritzak abian jarritako kanpainarekin bat egin du udalak.

Ekimen honeguz “erroldatu beharra” dutela gogoratu nahi die etxebizitzetako jabeek, baita pisu bat alokatu edo errenta minimoa jasotzen dutenei ere.

“Hori ez betetzeak gure bizilagunen eskubideak urratzen ditu. Beharrezkoa da herrian bizi diren lagunen kopuru zehatza jakitea, besteak beste, udalerriko ekintzak eta udalzerbitzuak egokitzeko”, azaldu du Isabel

Garcia Gizartekintza zinegotziak.

Aipatutako kanpaina etorkinei zuzenduta dago batik bat. Joan den otsailko datuen arabera, Europako Batasunetik kanpoko 1.408 etorkin bizi dira Leioan eta 255 barrukoak. Horien artean, bolibiarak (561 lagun), kolonbiarrak (221) eta marokoarrak (102) dira gehienak, gaur egun 30.011 herritar erroldatuta dauzkan herrian.

“Erroldatzea eskubide eta betebeharrak da” lelopean, Leioako udalak orri eta kartelak banatu ditu zenbait lekutan; guztira, 500 informazio orri eta 40 kartel. Toki hauen artean euskaltegia, kultur aretoak, Behar-gintza, udaletxea, udaltzain etxea, kiroldegia, Sortarazi, Caritas, elizak eta mintzato-kiak daude. ○

ERAKUSKETA ARETOAK BERE ORDUTEGIA LUZATU DU

Kultur Leioako erakusketa aretoak asteburuko bisiten ordutegia luzatu du, bertaratuek aukera gehiago izan ditzaten aretora sartzeko. Hori horrela, astelehenetik barikura, bisita ordutegia 10:00etatik 20:00etara eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, 17:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da.

JAIK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA MARTXAN DA

Apirilaren 30a da Leioako jaiak iragartzen dituen kartela aurkezteko epemuga. Kartelen lanketan nahi beste teknika erabili daitezke eta euskarri fisiko (30 x 40) zein digitalean (jpg edo tiff) aurkez daitezke. Kartelak, halaber, *Leioa San Juan Jaiak 2008* leloa eroin behar du. Sari banaketa maiatzaren 11n izango da eta irabazleak 800 euro irabaziko ditu.

ARRAINEN BAZKA ANTZEZLANA

TANTTAKAREN ESKUTIK

Arrainen bazka gizartearen errotuta dagoen antzezlan da. Halaber, gai izugarria du oinarri, laneko jazarpena, alegia. Egoera horretan sakonduta, bere burua jaten duen gizarte bat aurkitzea lortu du: seme-alabak gainontzekoen berrero eta lagunak etsai izatera behartzen dituen gizarte. Ikuskizuna apirilaren 25ean izango da Auditoriumean.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

TURISMO BULEGOAK ORDUTEGI BERRIA DU APIRILETIK AURRERA

Turismo Bulegoak ordutegi berria du apirilaren 7tik aurrera. Hori horrela, honako hau izango da Bulegoaren ordutegi berria: asteleheneetik barikura, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 19:00etara. Domeka eta jaiegunetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara soilik egongo da zabalik.

700 KORRIKALARI IZAN DIRA SOPELAKO VI. HERRI LASTERKETAN

700 korrikalari izan dira euripean Sopelako VI. Herri Lasterketan. Munarri Atletismo Taldeak antolatutako herri lasterketak Sabino Arana Kalean zuen irteera eta udaletxe ondoan helmuga. Gazteenak hasi ziren, adinez txikienetik abiatuta, sei talde ezberdinetan, 400, 800, 1.200 eta 1.500 metroan lehiatuz. Helduen sailkapenean, Raquel Llamas Gago, Santutxu taldeko gasteiztarra eta Unai Saenz de la Fuente, La Blanca taldekoa izan ziren azkarrenak, hurrenez hurren, 30,17 eta 26,32-ko denbora markak lortuta. Imanol Marroquinek lortu zuen sopoloztar onena izatea, 27,31ko markagaz bosgarren sailkatu baitzen gizonezkoetan. Lasterketa amaitutakoan, parte-hartzaileek sariak eta garaikurrak jaso zituzten udaletxean. Gizonezko eta emakumezko seniorrei, halaber, zazpi diru-sari eman zizkieten. Hori bai, eguraldiak eragina izan zuen lortu ziren denbora-marketan.

SOPELANA GAZTEA BLOGAK HARRERA ONA IZAN DU

Asier Bilbao bulegoko arduradunak azaldu duenez, "blogaren helburua herriko gazteek esku hartzea da, ez orrira sartu eta udalak eurentzat antolatu duena ikustea bakarrik". Bilbaoren ustez, zabaldu eta gutxira, blogak jasotako erantzunen kopurua oso ona izan da.

Gazte udalekuak 2008

Uztailaren 7tik 11ra bitartean egingo dira gazte udalekuak, Gazte Bulegoaren ekimenez



Informazio gehiago: 94 406 55 19 / sopelanagaztea.blogspot.com

Aurtengoan ere, Sopelako 13-18 urte bitarteko gazteei zuzenduriko udako programazio bereziaren barnean *Udaleku Gaztea* programa martxan jarri du bertako Gazte Informazio Bulegoak.

Oraingoan Burgoseko (Espainia) Frias herrian izango da udalekua. Bertan ekintza ugarietzat gozatzeko aukera izango dute gazteek: espeleologia, ur jokoan olinpiadak, kayak, kirol alternatiboak, abentura zirkuitoa, gaubelak etab.

Udaleku Gaztean parte hartzeak 80 euro balio du eta egun guztietako ekintzak,

begiraleak, janaria, garraioa, materiala eta aseguru hartzen du barne.

Izen-ematea Sopelako Gazte Informazio Bulegoan egin daiteke apirilaren 21etik maiatzaren 30era bitartean.

Bestalde, perkusio tailerra ere antolatu du Gazte Informazio Bulegoak. Maiatzaren 7an hasiko da eta ekainaren 4an bukatu. 16-30 urte bitarteko gazteei zuzenduriko ikastaroa dugu hau eta doakoa da. Gehienez jota, 15 gaztek har dezakete parte, eta izena emateko azken eguna apirilaren 30a da. o

Iraitz Arostegi > tatuajegilea

"Tatuajeak **eroaten jakin** behar da; horregatik aurrekoak estaltzeko aukera egon behar da"



Argazkian, Iraitz Arostegi

Ingeniaritza ikasketak egin bazituen ere, benetan gustuko duena marrazkiak egitea zela bazekien ondo. Gauzak horrela, neskalagunaren laguntzagaz tatuajeak egiten hasi zen. Ekaina aldera, tatuaje eta pearcing lokala irekiko du Bilboko Alde Zaharrean.

—Zer da tatuajea?

—Larriari pigmentazioa egiten zaio tatuajea egiten den bakoitzean. Larriak geruza ezberdinak ditu eta orratzak geruza horietako batean tinta botatzen du. Askok uste dute tinta hori betiko gelditzen zaizula tinta gisa, baina ez da horrela, tinta sikatzen baita; hau da, orratz bat tatuajearen sartzen baduzu ez da tintarik aterako, ez dagoelako.

—Nola hasi tatuajeen munduan?

—Niri betidanik gustatu izan zait marrazkiak egitea. Arte ederrak egin izana gustatuko litzaidake, baina matematika eta fisikan ona nintzen gero, arte ederrak egin beharrean, ingeniaritza egin nuen. Ingalaterran bukatu nuen karerra eta bertan lan egiten hasi ere. Baina ingeniaritza lanak asperitzen ninduen eta neskalagunak tatuajeak egiten laguntzea proposatu zidan.

—Nola ikasten da tatuajeak egiten?

—Ez da irakasten dizuten gauza horietako bat. Besterik gabe jendea zuregana jotzea lortu behar duzu. Ni hasieran, adibidez, nire neskalagunak nola tatuatzen zuen begiratzen nuen eta azalpenen bat ere ematen zidan. Baina azken finean, benetan ikasteko, tatuajeak egin behar dituzu. Horretarako, musutruk tatuajea egiteko prest dagoen jendea lortu behar duzu. Hasieran marrazki errazak margozen hasten zara: tribalak etab.

—Eta akatsik badago?

—Borobil bat edo izar bat bada, ez dago atzera bueltarik; irudi hauek perfektuak dira eta ondorioz, egin dezakezun akatsa oso txikia izan behar da, ondoren zuzendu ahal izateko. Baina txinatar letretan edota tribaletan akatsik baduzu, errazagoa da zuzentzea.

—Tatuajeak bizimodu zehatz batez lotzen dira maiz...

—Bai, horrela da. Jende askok arraro begiratzen zaitu. Nire neskalagunak, esaterako, bi besoak osorik tatuaturik ditu eta hori bizitzeko modu bat da, azken finean, bizitza osorako baita tatuajea. Seme-alabak izango dituzu, ondoren aite ere izango zara... eta orduan ere, tatuajea eroango duzu. Tatuajea eroaten jakin behar duzu; gaur egun gazte askok lepoa bezalako lekuetan egiten dute haien lehenengo tatuajea, baina hori ez da lehenengoa egiteko

«Ingeniaritza lanak asperitzen ninduen eta tatuajeak egiteari ekin nion»

tokirik proposena. Beso osoa tatuaturik duen pertsona batek, adibidez, badaki zer den tatuajeak eroatea eta ondorioz lepoan egin dezake. Baina 18 urtegeaz haien lehenengo tatuajea egiten dutenek estal daiteken toki batean egitea gomendatzen dut, ondoren damutu daitezkeelako.

—Higiene araurik ba al dago?

—Bai. Eusko Jaurlaritzak ikuskatzailea bidaltzen du lokaletara, ea higijene arauak betetzen diren egiaztatzeko. o

Harremanetarako: 634 443 115

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

SAHARAKO LAGUNENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Saharako Hausa herriari emandako diru laguntza ekonomikoak handitzea erabaki du Berangoko Udalak, bertako alkateak egindako proposamen baten ondorioz. Anabel Landa berangoko alkateak esandakoaren arabera, helburua harremana sendotzea da, Berangoko herriak emandako laguntzak proiektuak gauzatzeko balio dutela bermatu ahal izateko. Etxeetan ur biltegiak jartzeko eta haurtzaindegiko langileei diru-saria emateko erabiliko dute dirua aurten.

LIBURUAREN ASTEA APIRILAREN 21ETIK 26RA

Liburuaren astea ospatuko da Berangoetako Kultur Etxean apirilaren 21etik 26ra. Ekintza guztiak etxeko txikiei bideratuta egongo dira eta arratsaldeko 6etan izango dira. Beldurrezko ipuinak eta beldurrezko pertsonaien tailerra, antzerkiak eta txotxongilo emanaldiak izango dira, beste gauza askoren artean.

EXPO ZARAGOZARAKO BIDAIRAKO IZEN EMATEA

Expo Zaragoza azokarako bidaia antolatuta du Kultur Etxeak ekainaren 21erako. Izena emateko epea maiatzaren 15a arte egongo da zabalik. Autobusa goizeko 6etan irtengo da Berangotik eta gaueko 11etan bueltako da. Bidaiaren prezioa adinaren arabera izango da eta Berangon erroldatutakoek deskontuak izango dituzte.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Kontsumoa eta nagusiak

jardunaldiak antolatu ditu Zaharren Etxeak, auto-medikazio eta ingurugiro gaiak lantzeko



Getxoko Ingurumen Gelara bisita gidatua antolatu dute

Bost ekitaldi egingo dira apirilaren 21etik 25era Berangoko Zaharren Etxean ospatuko diren *Kontsumoa eta Nagusiak* jardunaldien barruan: bi hitzaldi, bi informazio-eskola eta bisita gidatu bat. 21ean, arratsaldeko 17:30ean emango diete hasiera jardunaldiei, Marisa Bouzas medikuak emango duen *“Medikazioa eta automedikazioa”* hitzaldiarekin. Hurrengo egunean, ordu berean, *“Sendatzen duen guztia medikamentua al da?”* informazio-eskolaren txanda izango da. Honetan parte hartu ahal izateko izena eman beharko da aldeztu aurretik. Hilaren 23an eta 24an, *“Kontsumoa eta ingurumena”*

izenpean hitzaldia eta tailerra emango du Igor Marcos geologoak. Jardunaldiei amaiera emateko, Getxoko ingurumen gelara bisita gidatua antolatu dute apirilaren 25erako. Hau goizeko 10etan irtengo da Zaharren Etxetik.

Kontsumo arduratsuen gainean hausnartzeko helburuarekin antolatu dituzte hitzaldia eta tailerrak; izan ere, garrantzitsua da honetan nagusiek bete dezaketen papera, bai eurentzako egindako kontsumo ekintzei dagokienez, baita ingurugiroa zaintzeko eta garapen iraunkorraren alde egiteko egin dezaketen lanari dagokionez ere. ○

Gorlizko Ikastetxea > XXV. urteurren jaia

“Orain dela urte bi zabalduetako eraikin berria ere txiki lotu zaigu”



Juncal Bergaretxe (zuzendaria), Arantza Quintanilla (ikasketa burua) eta Ines Pacheco (irakaslea)

Plentziako eskolak utzitako gela batzuetan, apaizaren etxean eta Batzokiko lokalean, baliabide urriekin, eman zituzten Gorlizko Ikastetxeko irakasleek lehenengo eskolak orain dela 25 urte. Aurrefabrikatuak, “txaletak”... denetarik erabili dute urte hauetan aurrera ateratzeko. Orain dela bi urte eraikin berria egin zuten, baina hori ere txiki gelditu zaie. Gaur egun, haur-hezkuntza eta lehen-hezkuntzako D ereduak 428 ikasle daude eta zenbakia gora doa urte urte.

Kopuruan eta tamainan hazteak kudeaketa aldetik gauzak asko zaildu ditu. Orain dela 18 urte metodologia aldatzeko beharra ikusi zuten, ordura arte erabilitakoekin irakasleak ados ez zeudelako; eskola gehienetan erabiltzen denaren oso ezberdina den Amaraberi sistema erabiltzen hasi ziren. Umeek ez dituzte testu liburuak oinarri bezala erabiltzen, talde lana da nagusi, lanei zertarako bilatzen saiatzen dira, irra-

tsaioa eta egunkari bat egiten dute egunero... metodologia dinamiko eta bizia da. Horrek lan eta buruhauste asko ekartzeaz gain, ospe handia ere eman die.

Oztopoak gainditzen jakin izan dute Gorlizko Ikastetxeko lagunek. 25 urte bete dituztela ospatzeko, urteurren jaia antolatu dute apirilaren 26rako. Goizeko 11etan Aratz dantza taldeko eta Lirain abesbatzako

«XXV. urteurrena ospatzeko, jaia antolatu dute apirilaren 26rako»

lagunek emango diote hasiera ospakizunari. Horren ostean, antzinako argazkien erakusketa, bazkaria, ikasle ohien musika emanaldiak eta Tapia eta Leturiaren erromeria izango dira. Parte hartu nahi duen edonorentzat atek zabalik egongo dira. Gainera, ikasleek egindako irratsaio berezia entzun ahal izango da egun osoan zehar. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENA

URDULIZ

T: 946 761 128 / www.basartena.com

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

TXAPEL REGGAERAKO KARTELA ETA KAMISETA DISEINATZEKO LEHIAKETA

Uztailaren 19an ospatuko da aurten Armintzako Txapel Reggae musika jaialdia. Antolatzaileek herritarren parte hartzea bultzatu nahi dute kartela eta kamiseta diseinatzeke. Horregatik, lehiaketa jarri dute martxan. "Txapel reggae Armintza 2008" testua eraman beharko dute lanek eta diseinu bana aurkeztu beharko da kamiseta eta kartelerako. Lemoizko Kultur Etxera zein armintzajb@hotmail.com helbidera bidali behar dira lanak, izena eta harremanetarako telefonoarekin batera. Irabazleek 100 euro jasoko dituzte.

EXPO ZARAGOZARAKO BIDAIA GORLIZETIK

Maiatzaren 15a arte egongo da zabalik Gorlizko Kultur Etxeak antolatu duen Expo Zaragozarako bidaian izena emateko epea. Uztailaren 4tik 6ra izango da eta 53 pertsonentzako lekua egongo da. Joan nahi dutenek 266 euro ordaindu beharko dituzte (gela hirukoitzean). Gorlizen errolatutakoak 26 euroko deskontua izango dute.

GAZTE ASTEA ANTOLATU DUTE BARRIKAN

Multiabentura astea antolatu du Barrikako Kultur Etxeak uztailarako. 12 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte. Izena emateko epea, maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik.

Informazio gehiago: 94 677 51 63

PLENTZIA

Itsas-ikerketaren zentroa erietxe zaharrea 2011rako



Erietxeak 2.500 metro koadro ditu hiruko solairutan banatuta

Ingurumenak gizakiongan daukan eragina aztertzeke balioko du, besteak beste, Plentziako erietxe zaharrea eraikiko duten Itsas Estazioa. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten martxoan. Honen arabera, Aldundiak 7 milioi euro inbertituko ditu 2011n zabaldu nahi den itsas-zentroan. Hiru solairu eta 2500 metro koadro ditu erietxe zaharrak. Eraikina 1923koa bada ere, egitura ondo dauka eta berri berritu ez dute egingo.

Estazioak ingurumen arloko zientziak sendotu gura ditu, baita ingurumen arloko hezkuntza, biologia eta bioteknologia ere. Herritarrentzako eta espezialistentzako ekitaldiak eta graduondo ikastaroak antolatu dituzte bertan. Horrez gain, zientzia eta teknika arloko aholkularitza eskaini nahi diete ingurumen, industria eta administrazio enpresei. Alga toxikoen bilduma gortetzeko eta algak manipulatzeke gela, segurtasun biologikoko P3 gela, akuarioa, liburutegia eta mintegiak izango ditu. ○

Api. 21 - Mai. 7

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

- ▶ **Olioak.** David Mateu Alonso. Plentziako erakustaretoa. Hilaren 30era arte.
- ▶ **Ibigailu Klasikoen Erakusketa.** Plentziako Astilleroa. Maiatzak 25, domeka. 10:00.

GETXO

- ▶ **Carmen Renteriren Itsas Paisaiak.** Algortako erakustaretoa. Hilaren 26ra arte.
- ▶ **Artaza Romo institutuko Arte Ederretako ikasleen erakusketa.** Erromoko erakustaretoa. Hilaren 25era arte.
- ▶ **Antezaleak.** Algortako erakustaretoa. Apirilaren 28tik maiatzaren 3ra.
- ▶ **Bosteko 08.** Erromoko erakustaretoa. Apirilaren 29tik maiatzaren 16ra arte.

LEIOA

- ▶ **Burdinaren artisauek; forjaketaren artisauek.** Erakusketa aretoa. Maiatzaren 4ra arte.
- ▶ **San Juan jaietako kartelak.** Erakusketa aretoa. Maiatzak 5, astelehena.

MUSIKA

LEIOA

- ▶ **Ganbera musikako zikloa.** Auditorium. Maiatzak 7 eta 14. 22:00. Sarrera: 3 euro.
- ▶ **Gu ta gutarrak.** Auditorium. Apirilak 19, zapatua. 20:00. Sarrera: 5 euro.

GETXO

- ▶ **Marc Copland-Greg Osby Quartet.** Andrés Isasi Musika Eskola. Apirilak 26, zapatua. 20:00.

▶ Erakusketa

Burdinaren artisauek

Gure kulturaren iragan urrunaren berri ematen diguten aztarna materialen artean, hainbat tresna, lanabes eta etxeko tresneria aurki ditzakegu; orain dela hamarkada gutxira arte erabili izan arren, horien jatorrizko erabilera ez dugu ezagutzen. Tresna horien egikera gaur egungo garaia aldean oso desberdina zen garai batekoa da; aurrerapen teknologikoko geldoaren ondorioz, objektu iraunkorrak egin behar ziren, belaunaldietan zehar iraun behar baitzuten familiaren etxeko gauzen artean; asmo horregaz, eta artean diseinuaren kontzeptu modermotik urrun, burdinaren artisauek forjatzearan artista bihurtzen ziren, eta kolpe kolpe moldatzen zituzten lehengaiak eskaintzen zizkien aukera estetikoak.

• **Non:** Leioako erakusketa aretoa • **Noiz:** apirilaren 10etik maiatzaren 4ra arte

ZINEMA

URDULIZ

- ▶ **Horton.** Kultur Etxea. Apirilak 26, zapatua. 18:00. Sarrera: 2 euro.

GETXO

- ▶ **El buen alemán.** Getxo Antzokia. Apirilak 23, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
- ▶ **Persepolis.** Getxo Antzokia. Apirilak 25, barikua.

22:00. Sarrera: 2,90 euro.

LEIOA

- ▶ **La pianista.** Auditorium. Apirilak 29, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
- ▶ **Padre nuestro.** Auditorium. Maiatzak 6, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

ANTZERKIA

GETXO

▶ Doctorando.

Hiedra. Getxo Antzokia. Apirilak 25, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

LEIOA

- ▶ **Arrainen bazka.** Auditorium. Apirilak 25, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.

BESTEAK

ERANDIO

- ▶ **Erandio Magiaz blai Nazioarteko II. Jaialdia.** Herrian zehar. Apirilaren 21etik 27ra.

GORLIZ

- ▶ **Gorlizko eskolaren 25. urteurrena.** Ikastetxea. Apirilak 26, zapatua. 11:00etatik aurrera.

GETXO

- ▶ **Liburu aurkezpena: Propiedad, burguesía y territorio: la conformación urbana de Getxo en la ría de Bilbao (1850-1900).** San Nikolas liburutegia. Apirilak 22, martitzena. 19:00.
- ▶ **Nazioarteko Liburu Eguna: Liburu Azoka.** Algortako Geltoki plaza. Apirilaren 23tik 26ra.
- ▶ **Ipuin kontaketa: Galtxagorriak.** La Gusana. Apirilak 26, zapatua. 13:00.
- ▶ **Nazioarteko Dantza Eguna: Koreografiak.** Danza Getxo. San Nikolas plaza. Apirilaren 23tik 26ra.

PLENTZIA

- ▶ **Skate erakusketa.** Udaletxeko Futbito zelaia. Apirilak 26, zapatua. 11.30etik aurrera.

LEIOA

- ▶ **Solochelobach dantzaldia.** Kultur Leioa. Apirilak 24, eguena. 20:00. 6 euro.
- ▶ **Txefo eta Anduriña: Eo... Hemen nago!** Familiarentzako ipuin kontalaria. Kultur Leioa. Apirilak 27, domeka. 12:00. 2 euro.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



GetxoModa 2008

Areetako Maritimoan egon ginen apirilaren 8an, GetxoModa 2008ko lehenengo egunean. Egun horretan hamalau arropagile gazteen proposamenak ikusteko aukera eduki genuen, orrialdeotara ekarri ditugunak. Jantziak erakutsi ez ezik, lehia ere aritu ziren gazteak eta akabuan Yvonne Lopez bilbotarrak eskuratu zuen lehenengo saria, astronautengan inspiratutako bere bildumarekin.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ardiak

Getxoko Andra Marin

Argazkia ikusi eta gero, boteprontoan ardien eta eliztarren arteko konparazioa izan daiteke bati bururatzen zaion lehenengo ideia. Baina hori ez da ordea guri irudi adierazgarri honek lehenengo begiratuan iradoki diguna. Gehiago ikusi eta sentitu dugu beste garai bat (irudi zaharregia ez izan arren), gure herria herri baserritarra zenekoa. Horixe!

GETXO, 1970ko APRILA
Getxoko Udal Liburutegiak utzitako argazkia

[berbetan]

Euskal Herria porlanaren herri bihurtzeko beldur da Iñaki Barcena. Horregatik da Ekologistak Martxan taldeko kide. EHUn Zientzia Politikoetan garatzen duen irakasle lanarekin bateratzen du zaletasun hori. Jaiotzez erandioztarra, Sestaon hazi zen, La Iberian, itsasadarretik hurbil eta oraindik bertan bainatzeko aukera zegoela. Gaztetan ikusten joan zen ingurune haren eraldaketa. Agian horregatik sortu zitzaion ama lurraren defentsarako grina. Egun Larrabetzun bizi da, hiria aldatu du herri txikiaren truke. Baina dena ez dago galduta eta itxaropentsu da, hormigoia ere ere duaren aurka gero eta ahots gehiago altxatzen baitoaz.

Iñaki Barcena

Porlanaren logikari oztopoak jartzen

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zuzenbidean lizentziatua zara eta Zientzia Politikoetako irakasle EHUn, baina jende gehienak jarduera ekologistagatik ezagutzen zaitu.

—Urteak dira ekinbide horretan murgilduta nabilela eta gizartean gero eta kezka handiagoa sortzen du gai horrek. Unibertsitatean sartu nintzenean Sestaon bizi nintzen eta han piztu zitzaidan gogo. Komite Antinuklearrean ibili nintzen. Garaiko gai nagusia Lemoizko zentral nuklearra zen, baina Ezkerraldean ere bagenezkan gure gaiak, itsasadarraren zikintasuna, kasu. La Iberian bizi nintzen, Altos Hornos inguruan, eta txikitan karramarroak hartu eta ibaian bainatzen ginen, 60ko hamarkadan hori egiteko aukera baitzegoen oraindik. Baina nerabetasunean konturatu ginen nolako triskantza sozio-ekologikoa gertatzen zebilen, ingurune dana gero eta zikinago zegoela, galipota eta kiratsa zeriola leku guztietatik. Hamazortzi urterekin edo hasi ginen protestak antolatzen eta kontzientzia hartzen. Lemoizko gaia pil-pilean zegoen, baina Komiteak antinuklearrak izateaz gainera, ekologistak ere baziren. Geroago antimilitarismoan murgildu nintzen, OTANen

garia.

—Egun, Ekologistak Martxan eta Unibertsitatean.

—Eskizofrenia moduko batean murgildurik nabil, hanka bat unibertsitatean, eta gizarte mugimenduan bestea. Kontraesanak sortzen dira batzuetan. Logika desberdinarekin funtzionatzen duten bi mundu dira eta beste unibertsitario asko dabil nire moduan. Harremana estuagoa izan liteke gizartearekin, baina zoritxarrez, gure

“Ez daukat eragozpenik esateko oraingo errektore-taldea azken 25 urteotako onena izan dela”

unibertsitatea nahiko feudala da, zaharkituta dago eta ez die erantzuten gizarteak planteatzen dizkion erronka askori.

—Laster errektore berria hautatuko duzue. Nola ikusten duzu auzia?

Azken lau urteotan asko aldatu dira gauzak. Ez daukat inongo eragozpenik esateko oraingo errektore-taldea azken 25 urteotako onena izan dela. Ez diet botorik emon, baina unibertsitatean arazo gehien konpondu duen taldea dela onartu behar dut. Ez

funtzionarioak garen irakasleontzako aldarrikapen historiko batzuk lortu ditu, adibidez. Litekeena da talde berbera jarraitzea beste lau urtez, eta ez legoke txarto. Izan ere, unibertsitatea oso feudala da, sigla politiko eta sindikalek ez dute ondo funtzionatzen, taifa moduko erreinuak daude eta monarka gehiegi. Oso bertikala da, oso hierarkikoa eta oso piramidala. Egungo errektore taldeak ahalegin handiak egin ditu ateko irakasleen egoera konpontzeko. Ez dute bere oso-

tasunean lortu, baina batzuen egoera konpondu da. Aurreko taldeekin alderatuta, beste filosofia eta modu batzuk agertu dituzte. Hori behintzat, onartu behar zaie. Nire aukera beste bat izan zan, Iñaki Antiguedadena, baina eragozpenik ez dut esateko talde honek besteek urteetan egin ez dituzten gauza batzuk egin dituela.

—Ezkerraldean hazi zara eta esan bezala, bertako mugimendu ekologistan ibili zinen gaztetan. Egun ere, hainbat aldarrika-



pen ekologiko darabilte, Barakaldon kasu.

—Itsasadarraren bi aldeetan ereduaren arteko desberdintasunak somatzen ditut. Ez da gauza berria. Trianoko mendietan burdina topatu zutenetik, eredu industrial-ekonomiko jakin bat sortu zen Ezkerraldean, ontziolak, labe garaiak... Baina eredu siderurgiko-industrial horrek eraldaketa handiak jasan zituen, 80ko urteetan batez ere. Uribe Kostan beste motatako arazoak dituzte, urbanizazio eta luraren erabilerekin, adibidez. Bizitza kalitate desberdintasun handiak daude bien artean. Beste arazo batzuk alde bietan daude, lindana eta garraioa, kasu.

—Zergatik ereduaren desberdintasunak?

—Jokamolde politikoak izan dira desberdinak. Ezkerraldean, eredu ekonomiko-sozial horretatik, langileriaren esparru horretatik, nolabaiteko konplejuek eragin dute gauza handiak egitea, gune komertzial handiak, superportua, dorre altuak... baina eredu guttiz okerra da. Gobernatu duten sozialistek oso txarto ulertu dute garapen eredu eta oso lotuta egon dira enpresa transnazional handiekin. Uribe Kostan gune komertzial erraldoi gutxiago dago, eta Getxon ez dago batera, bitxia badirudi ere. Eredu desberdinak jarraitu dituztelako gertatu da, baina era berean, bata bestearekin integratuta daude. Hausnarketa egin beharko genuke garapen eredu horri buruz, ez baita batere iraunkorra, ezta zuzena ere. Abiadura Handiko Trenarekin, esaterako, planteatzen dabilta Santurtziko portuarekin lotura izan beharko duela, baina horrek ez dauka zentzurik. Trenez garraiatu behar dira, baina ez abiadura handikoan. Zoritxarrez, eztabaida horiek ez dira herritarrekin egiten.

—Abiadura Handiko Trenaren gaia gori-gori dago, bai, zergatik ez da eztabaida sozialik egin.

—Ez da egon eztabaidarik, interes politikoa iritzi publikoarekin ez kontrajartzeko. Egitasmo horrek kontraesan asko ditu, nor, zer, norentzat eta nola erabakitzen den, esaterako. Informazio falta izugarria dago. Horixe izan du erronka nagusia AHTren aurkako mugimenduak. Eta informazio

gehiago izan ahala, egitasmoaren aurkako jarrera handitzen doa. Insituzioek erabaki dute eztabaidatzeko ezer ez dagoela eta gauza asko definitzeko eta zehazteko dituzte. Gainera, AHTk ikutuko lituzkeen Udalen erdia ez dator bat harekin.

—Eusko Jaurlaritzak hainbat argudio plazaratu ditu. Adibidez, herrialdeen arteko garraioei bide emango diela, merkantzien garraioa errepidean nabarmen arinduko duela, denbora aurreztuko duela...

“Diru publikoarekin ziurtatzen da eliteen negozio pribatuak aurrera ateratzea, logika hori dago AHTren atzean”

—Azkenean ohartzen zara logika kapitalista bati jarraitzen diola: Europatik egokitzen zaigun egitasmoa da, suposatzen da Paris eta Madril artean AHT bat egin beharra dagoela, Madril diru-laguntzak eskaintzen ditu, baina ez da akordio politikorik egon, patata bero moduan erabili dute gaia hainbat alderdik. Interes bakarra da diru publiko asko eta asko etorriko dala. Baina norentzat egingo dute? Nork erabiliko du? Zer eragin izango du ekonomikoki, sozialki zein kulturalki? Ez dago eztabaidarik eta mugimendu zabala dago egitasmo hau onartzen ez duena. Gure ustez, tren behar dugu, garraio eredu herrikoiena eta ekologikoa delako. Baina abiadura handikoa ez da herritarrek mugitzeko tren, elite bat mugitzeko baizik.

“Udaletan ezezko jarrera badago, ez dute erraz izango AHT eraikitzea eta agian ez dute lortuko”

—Eta garraioaren arazoa konponduko du? —Ezta pentsatu ere. Oso jende gutxiaren arazoa konponduko du. Gure sistema ekonomiko-politikoan dauden elite gobernarietzat garraioa negozioa da. Zenbat eta garraio gehiago, orduan eta negozio handiagoa. Logika eroa da hori. Garraioa moteldu behar dugu, ez dugu pentsatu behar garraio gehi-

go egonik hobeto biziko garenik, guztiz kontrakoa. Bertatik mugitzen diren merkantziak, adibidez, ezin dira horrelako tren batean eraman eta ez du inolako zentzurik, Baionatik gora eta Arabatik behera ezin direlako garraiatu. Pertsonak ere, gutxiak erabiliko dute, prezio aldetik soilik, ez delako bide-argarria izango.

—Hiriburuak denbora gutxian lotuko dituela ere esaten dute.

—Baina egunerokotasunean ez gara hiribu-

ruen artean mugitzen. Euskal Herrian herri handi asko ere badago eta ez gara mugitzen hiriburuetan bakarrik. Beraz, gutxiak erabiliko du. Gainera, ez dugu zertan azkarrago joan. Behar duguna mugimendu eta ilara gutxiago da. Baina hemen ez dute eztabaida hori bultzatzen. Bultzatzen dutena zera da, Andaluzian badute, zergatik guk ez? Edo ea Parisera zergatik ezin dugun bost ordutan joan. Hori ez da behar dugun eztabaida soziala eta, gainera, hor dago hegazkina. Europarekin lotzeko bost aireportu baititugu. Zenbatetan doa jendea Parisera, edo Bilbotik Donostiara, eta zenbat jende doa? Mugimenduen portzentaia baxua dira bidaia horiek. Beraz, dirutza hori dena gastatu behar badugu AHTn, norentzat ari gara

inbertitzen? Eta zeren kontura? Gainera, AHT eraikitzen badute, konpondu beharreko beste trenbideak, hiri ingurukoak... ez dituzte konponduko.

—Zein jendarte eredura garamatzate horrelako egitasmoek?

—Negozio bezala, Euskal Herri osoa porlanez antola daitekeela pentsatzea, aurrerapen

ekonomikoa lehen leloa izanik, atzean ezkututzen du zer eragin izango duten egitasmoak. Eta beste hainbat arlotan ere izango du eragin negatiboa, hizkuntza adibidez. Euskal Herrian hiru hizkuntza daude eta euskarari kalte egingo dio AHT bezalako egitasmo batek. Roberto Manjonek argi planteatu du eztabaida hori. Hau da, AHTrekin batera, eredu kultural bat ere jarriko da martxan. Hiriburuen zerbitzuari begirako jarrera da, ez herri txiki-ekie begirakoa. Ez da eredu orekatua. Herri txiki-ertain asko dago bertan. Eta beste egitasmo erraldoi batzuk ere eraiki gura dituzte. Santurtziko super-portua egin ondoren, orain Pasaiakoa eraiki gura dute eta itsasoari lapurtu behar diote tokia. Zertarako? Ez da beharrezkoa eta ez du zentzurik. Euskal Hirriaren egitasmoa da. Gobernatzen duten talde politikoek mar-

katzen dute eredu hori, eta ez dago nazio planteamendurik. Gainera, ahalik eta negozio gehien egitea da euren eredu. Porlanezko logika erora garamatza horrek. Diru publikoarekin ziurtatzen da elite bartzuen interes ekonomiko eta negozio pribatuak aurrera ateratzea. Horixe da AHT eta beste egitasmo horien atzean dagoen

“Nerabetasunean konturatu ginen nolako triskantza sozio-ekologikoa gertatzen zebilen”

logika bakarra. Ez da erabaki zuzena, ezta demokratikoa ere.

—Nola ikusten duzu Euskal Herria hamabost bat urte barru?

—Munduan dauden kontraesanen eraginak etorriko zaizkigu. Aukera daukagu herri txikia garelako, eta gauzak ondo egi-

teko baliabide teknologiko eta ekonomikoak ditugu. Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioek esku artean dituzten egitasmo denak ez dira aurrera aterako. Herri bakoitzean ikusi behar dute zer ingurune eta garapen eredu nahi duten, ez uzteko erabaki horiek Europak, Madril edo Parisek har ditzaten. Adibidez, AHT iga-

roko litzatekeen Udaletan ezezko jarrera badago, ez dute erraz izango eraikitzea eta agian ez dute lortuko. Eta AHTren aurkako jarrera zein mugimendua gora doaz mobilizazioetan eta planteamenduetan. Hori horrela den bitartean, ni itxaropen-tsu nago. ○

DIGITAL+ -ek ESKAINTZARIK ONENA DAKARTZU EUROKOPA OSORIK ETA BEREIZMEN HANDIZ IKUS DEZAZUN

DOAN | CANAL+ eta 100 arte
Lehiatuko partidu berri guztiak arte
Antena eta instalazioa

Abona zaitez
ERDIAN
Goienkale 5, Plentzia
94 677 03 36

HORREZ GAIN ZEZENKETA NAGUSIAK

APRILEKO FERIA	SAN FERMINEN FERIA	SAN ISIDORO FERIA
UDAZKENEKO FERIA	PILARREKO FERIA	BILBORO FERIA

DIGITAL+

Promocion válida del 25/03/08 al 30/06/08 para acceso abonados a DIGITAL+. Coste de inscripción a 6€ (precio vigente 50,15 € incluyendo impuestos). Gracia a la máxima y instalación técnica (20€ de cable, 1 hora de tv y dos conexiones D). Promocion no acumulable y condicionada al mantenimiento del contrato de acceso. El cliente y la operadora de acceso. Los abonados que carecen de una antena propia deberán abonar 100€ en concepto de acceso a instalaciones técnicas. Regalo pagado 1 hora 11:00:00. Si el cliente dispone de una antena propia el precio es de 4,10€. Regalo Abono Fútbol: hasta 30/06/08. Más en www.plus.es/mantenimiento/08



Astrabuduko mendigoizaleak

Mendigoizaletasuna ederto errotuta dago Astrabudian aspalditik, izan ere, bertako Atxazpe Mendi Taldea 1956an sortu zuten han, orain mende erdi baino gehiago. Garai hartakoak dituzue, hain zuzen ere, orrialde hauetara ekarri ditugun argazkiak, urte haietako kirol honekiko zaletasuna zelakoa zen ondo erakusten dutenak. Irudi hauetan mendi talde honen aitzindarien erretratuak daukazue, taldearen hastapenetakoak. Anboto, Jata, Ganekogorta, Mugarra, Gorbeia... inguruko tontor guztiak zapaldu zituzten lagun hauek. Kaikua, mahoizko prakak, artilezko galtzerdiak eta jertseak, txapela eta abarkak (artean "txirukak" eta are gutxiago goretexa asmatu barik zeuden eta), horiexek osatzen zuten euren janzkera.

Eta jakina, ardao zahatoa.

Argazkiak: **Atxazpe Mendi Taldea**









I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Laster zinemetan

U. Elorriagaren nobela batean oinarritutako Aramaioren **Un poco de chocolate** filma



Portu Zaharrean filmatzen egon zireneko une bat

Hala da, azkenean izen desberdinagaz baitaiaute dute Aitzol Aramaioren (Ondarroa, 1971) lehenengo film luzea; Unai Elorriagaren (Algorta, 1973) *SPrako tranbia* (Elkar, 2001) nobela sarituan oinarritutako filma. *Un poco de chocolate* izenburua ipini diote eta antza denez, hilaren 30ean egongo da ikusgai zinemetan. Dena dela, estreinaldia zelanbait egin dute honezkero, Malagako Nazioarteko Zine jaialdiaren egitarauak hala iragartzen zuen eta. Zinemaldi horretako sail ofizialean sartu dute Aramaioren lana, baina lehiaketaz kanpo, eta hilaren 12an eskainiko zutela aurreikusituz (lerrook irakurtzerako estreinaldia eginda egongo da). Ostera, zinemaldi horretan egon ez ginenok hilaren akabura arte itxaron beharko dugu filma ikusteko.

Askok akorduan edukiko duzuen legez, pasa den urteko abuztu-irail aldera pelikula filmatzen ibili ziren Algortako Portu Zaharrean eta herriko kaleetan, baita Gorliz eta Bilbo aldean ere. Ondarroarrak zuzendutako filmaren gidoiara Aramaiok berak eta Michel Gaztanbidek osatu dute, fotografia

arduraduna Gonzalo Berridi izan da, soinu-zuzendaria Pablo Bueno eta musikarrena Bingen Mendizabal. 90 minutu inguru irauten duen filma Tusitala, Egutera eta Mundo Ficción etxeek ekoiztu dute.

Elorriagaren nobela irakurri dutenei filmaren mamia ezaguna egingo zaie, baina pelikulak badu alde berririk, bitxikeria ederrik. Hala, nobelako protagonistei bizia eman dieten aktoreak ere ez dira nolanihakoak, besteak beste, hurrengoek parte

«Pasa den udan Portu Zaharra, Algorta, Gorliz, Bilbo... aldean ibili ziren filmatzen»

hartu dute *Un poco de chocolate* film luzean: Hector Alterio (Lukas), Daniel Brühl (Marcos), Julieta Serrano (Maria), Barbara Goenaga (Roma), Ramon Barea, Marian Aguilera, Mikel Albisu, Gorka Otxoa etab.

Beste barik, filma ikusteko irrikatan gaude, pena euskarazkoa ez dela... ○

Informazio gehiago:
www.unpocodechocolate.com

Getxo Jazz prest

Hainbat jazz estilotako **hamabost kontzertu** baino gehiago izango dira uztailaren 8tik 12ra



Informazioa: www.jazzeuskadi.com

Aurreko zenbakian aurtengo Getxo Jazz jaialdiko (uztailak 8-12) talde gazteen lehiaketan parte hartuko duten lau taldeen izenak jakinarazi genizkizuen, bada dagoeneko egitarau osoa prest dauka Getxoko Kultur Etxeak, eta hauek dira egitarauaren aurrerapenak iragarri dituen izar nagusiak: Iñaki Salvador Noneto, John McLaughlin & 4th Dimension, Avishai Cohen Trio, Arturo Sandoval eta Archie Shepp laukotea. Hurrenez hurren, Euskal Herriko taldeak lehenengo egunean eskainiko du kontzertua, bigarrenean gitarra eta piano-jole britainiarren txanda izango da, biharamunean Jerusalem

jaiotako eta Israelen eta AEBetan ikasi zuen konjartaxu-joleak joko du, laugarren kontzertua Miamin bizi den kubatar tronpetajoleak eskainiko du eta jaialdiari amaiera emango dio saxo-jole iparramerikarrak. Emanaldi horiei guztiei talde lehiaketako, Hirugarren Milurteko eta jam sessioneko saioak gehitu behar zaizkio, oro har, 15 jazz kontzertu baino gehiago eskainiko ditu XXXII. Getxo Jazz-ek.

Amaitzeko, gogoratu jaialdi hau Euskadiko Jazz Zirkuituko hiruretako bat dela. Hala, Donostiako jazzaldiko kontzertu batzuk ere iragarri dituzte dagoeneko, berbarako: Lou Reed eta Liza Minelli. ○

diskoak

Mala sangre
Soziedad Alkoholika
RoadRunner



Luzaroan lanik atera barik egon ostean, *Mala sangre* dugu gasteiztarren azken diskoa. Oraingoan RoadRunner zigilu atzerritar eta ospetsuagaz kaleratu du te diskoa. Kolaborazio ugari aurki ditzakegu bertan; *Dios Vs. Ala* abestia esaterako, Joao Gordo Ratos de Poraoko abeslari brasildarrak hartzen du parte.

Hamar t'erdietan.
Ruper Ordorika
Elkar



Bilboko Kafe Antzokian zuzenean grabatutako kantak eta irudiak bildu ditu CD eta DVDan. Lan honetan Ruper Ordorikak bere ikuspuntu propioa ezarri die kantuei 2001etik aurrera emanaldi ugarietan alboan izan duen Mugalaris taldearen laguntzagaz.

Taupaden bidetik
Khaus
Baga-Biga



Berriozarreko taldea da eta 2001. urtean sortu bazen ere, 2004. urtera arte ez zuen bere lehenengo maketa grabatu. 2005ean, berriz, Euskadi Gaztea XV. maketa lehiaketa irabazi zuen. Metal arina jorratzen du boskote honek eta ia seguru, gero eta gehiago entzungo den taldea dugu Khaus.

zuzeneko >

Bob Dylan Iruñean



Bob Dylanek (Minnesota, AEB, 1941) Iruñeako zuzen-plazan kontzertua eskainiko duela iragarri berri dute. Hitzordua ekainaren 25erako

ipini dute eta sarreren prezioa 42-50 euro bitartekoa izango dela aurreratu dute. Orain dela bi urte Zurriolan (Donostia) eskainitako kontzertua akorduan izango dute askok, bada rockaren historian itzal handiko musikariagaz berriro ere gozatu gura duenak edota kontzertu hartan egon ez zenak badu oraingoan aukera. Bertaratzen denak 2006an plazaratu zuen *Modern Times* laneko abestiak zuzenean entzuteko parada izango du, eta baliteke aspaldiko kanta ezagunetako beste hainbat ere jotzea. Kontzertua antolatzeaz *In and Out* promotora arduratu da.

Informazio gehiago: www.bobdylan.com

sariak >

Muguruza, Fito...

Espainiako Estatuan antolatzen duten *Premios de la Musica* sariketarako Euskal Herriko hainbat abeslari, talde edota ekimen saritu berri ditu. Euskarazko kanta onenari saria Jabier Muguruzaren "Irene"-rentzat (*Konplizeak*, 2007) izan da; iaizko kontzertu-bira onenaren irabazle Fito&fitipaldisen *Por la boca vive el pez* aukeratu dute; filmeetako soinu banda onenaren garaikurra Fernando Velazquez getxoartzar jaso du *El Orfanato*-ko soinuagatik; eta musikaren hedapenaren saria Donostiako Jazzaldia eman diote.

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Odola aztoratzeko poemak

Sarean ipini dute Patri Urkizuk prestatu zuen **Eros, eros...** euskal olerki erotikoen antologia

Heldu da udaberria, eta esaerak dioenez, askori odola gehiago aztoratzen, nahasten, bor-borka ipintzen, berotzen... zaie aro honetan. Maitemintze-harreman gehiago izaten ei dira udaberrian, hala diote behintzat esamesek, momentuz horren ikerketa sakonen berri jaso ez badugu ere. Egia da hamaika izaki eta gizaki esnatzen eta natura loratzen den garaia badela, eta horrek ere izango du eraginik... Dena dela, maitemintzuko direnentzat, daudentzat, gogoak dituztenentzat, edota bestela, poesia erotikoa eta euskal tradizioa ezagutu gura dituenentzat proposamen egokia dugu. Armiarmak, sareko literatura gunek, oraintsu ipini du *Eros, eros...* (bertso eta poemak) (Baroja, 1985) antologia sarearen bitartez osorik irakur daitezkeen liburuen artean.

«Euskal kantari ezezagunen eta poeta ezagunen hainbat garaitako poema erotikoa»

Patri Urkizuk (Lezo, 1946) prestatu zuen erotikotzat jo daitezkeen hainbat garaitako euskal olerki eta kantu bilduma hori, eta 1985ean ikusi zuen argia. Orain, sarean dago lan hori eta oso-osorik irakur daiteke. Argitaratu zen garai hartan horrela aurkeztu ei zuen Urkizuk liburua: *«Berobero, ardo xortek zintzurra eta barrena epeldu*



Etxepare, Lauaxeta, Mirande, Atxaga...

ondoren lagun artean hamaika bertso gordin, piperdun, lizun, zirikatzaile, lohi, desonestu, likits eta bero abestu ohi dim Xuberoatik Bizkaini». Hala, euskal poesian erotikotzat jo litezkeen aspaldiko eta gaur egunetik hurbilagoko poeten olerkiak hautatu zituen eta, besteak beste, hurrengo ahots erotikoa entzun ditzakegu: Etxepare, Gabriela Lohitegi, Oihenart, Oxalde, Ezkerra, Lauaxeta, Jon Mirande, Nemesio Etxaniz, Xabier Lete, Mikel Arregi, Atxaga, Casenave, Iñaki Zabaleta etab. Horiez gainera, hainbat mendetako poeta anonimoen bertsoek edota kantari ezezagunen abestiek osatzen dute bilduma, iparraldekoak eta hegoaldekoak. ○

Liburua osorik:
www.armiarma.com/baroja/baro04.htm

liburuak



Haragia
Eider Rodriguez
Susaa

Bizitzako sentipen ezberdinez ari da honetan, hona hemen adibide batzuk:
"Hondartzaren alde arrokatsua maite dut; Mutikoari betileak ikusten nizkion ahoz ahokoa egiten ziotela. Gaur argitaratu dituzte oposizioetarako emaitzak, liburuzain plaza atera dut...".



Ilegorriaren emaztea
Bill S. Ballinger
Igela

Itzultzailea Xabier Olarra dugu. Bikote iheslari baten istorioa da. Nobelak bi maila ditu. Alde batetik, kapitulu bakoitietan, Mercy eta Hugh nondik nora dabiltzan kontaktzen zaigu hirugarren pertsonan. Bikoitietan, berriz, lehen pertsonan, polizia ikerketa eskaintzen da.

[kirola]

Gaztetxoak prestatzen

Athletic eta Getxo Kirolak-en ekimenez **500 ume** baino gehiago dabilta Futbol Eskolan



Argazkian: Getxo taldeko umeak, Gorka Zabala, Iker Lopez, Andoni Canales eta Eneko Suances, besteak beste

Pasa den urtarrilean Getxo Kirolak eta Athletic taldeak sinatu zuten hitzarmenari esker, 500 ume baino gehiago dabilta prestakuntza eta kirol programa berezi batean, edota bestela esanda, Futbol Eskolan. Hitzarmenaren jardura nagusiak Getxoko umeentzat oinarri-futboleko eskola martxan ipini eta koordinatzea dira. Ekimenaren barruan udalerriko 8 futbol talde (Bizkerre, Iturgitxi, Getxo, Erromo, Arenas, Neguri, Arraultaldeon eta San Nikolas) eta 12 ikastetxe ere badabilta.

Getxo Kirolakeko kide Gorka Zabalak zehaztu duenez, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko umei begirako eskola da, benjaminetatik kimuetarainoko futbolari gaztetxoei zuzendutakoa. Eskola eta ekimena bera zertan dautzan ere azaldu du Zabalak: *«Lezamatik bidalitako bi begiralek dihardute gugaz lanean, Iker Lopez koordinatzaileak eta Andoni Canales prestatzaile fisikoak; gero Getxo Kirolakek aukeratutako Eneko Suances atezainen prestatzailea ere badago. Batez ere, eurek eta ekimenaren barruko entrenatzaileek daroate aurrena eskola. Athleticcek bidalitako bi lagun*

arteak planifikatzen dituzte saioak, hezten eta prestatzen dituzte entrenatzaileak, zaintzen dituzte entrenamenduak etab. Umeak ohi legez biltzen dira entrenatze-saioetan, baina saioak Athleticen metodologiari jarraituz prestatuta daude». Mutilek zein neskek (San Nikolas-ekoak eta Bizkerrekoak) parte hartzen dute eta Zabalak dionenez: *«ume guztiak zainduta edukitzeaz gainera, entrenamenduen edukia abera-*

«Benjamin eta kimu mailako neska-mutilak dabilta Futbol Eskolan»

tsa izatea da helburua, eta umei zuzendutako metodologia egokia eta ona erabiltzea; oro har, ume guztiak, talde ezberdinetan badabilta ere, eskolan daudenez, entrenatzeko eredu berdina edukitzea edota jarraitzea». Begiraleak euskara bultzatzen ahalegintzen direla ere jakinarazi digu Zabalak, hau da, saioak eta batzarrak euskaraz egiten, gero entrenatzaile bakoitzaren gaitasunaren arabera egiten ei dira saioak euskaraz ala gaztelaniaz. Hitzarmena ekainaren 30era arte dago indarrean, baina luzatzea espero dute. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

t. 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Zaloa Lopez de Munain > Getxoko toponimia ibilbideetako arduraduna

“Erdara nagusi zen auzoetan izenak euskaraz jartzen zituzten, prestigioa eman nahian”



Argazkian, Zalora Lopez de Munain

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak Bizarra Lepoan euskara elkartearen laguntzagaz, toponimia ibilbideak egiteko aukera eskainiko die herriko ikastetxe guztiei. Mikel Gorrotxategi eta Sofia Susok Getxoko leku izenei buruz osatutako materiala oinarri hartuta, leku bakoitzean kontatzeko interesgarriena azalduko diete sei eta hamabi urte bitarteko umeei. Zalora Lopez de Munain proiektu honen arduraduna da. Getxoko historiaren errepasotxo bat egin digu.

—Zertan datza Toponimia ibilbideak?

—Duela urte batzuk Getxoko udalak diru laguntza eman zion bikote getxoztar bati herriko lekuen izenak aztertze-ko. Hori oinarri hartuta, ibilbide horiek hartu eta egin ditugu, eta leku bakoitzean kontatzeko interesgarriena zer izango den aztertu dugu. Horretaz aparte, bederatzigarren ibilbide bat sortu dugu: *Euskararen ibilbidea*. Getxok badauzka leku batzuk berez euskaldunak direnak; gainera, Getxo orain arte euskalduna

izan da eta orain hasi da erdalduntzen, eta guk hori saihestu gura dugu, lehen-go Getxo hori berpiztu eta herritarrei erakustea da geure asmoa.

—Zuek eramandako proiektu horretan zer aztertu duzue?

—Berez daukaguna zergatik daukagun eta zergatik den horrela aztertu dugu guk: Igeretxe zergatik sortu zen, Etxetxu zergatik den hain garrantzitsua, Txiki ta Otaegi enparantza zergatik den inportantea, Andra Mariko baserriak... Azken

finean, Getxoko bezalako herri baten-tzat zergatik den hain esanguratsua gauza zehatz hori.

—Askotan ez dakigu nondik datozen tokien izenak.

—Bai. Gauza da Getxoko izen guztiak berez euskaldunak direla. Nahiko berriak diren auzoetan, Neguri baten eta Aiboa baten etab. erdaraz egiten zen, baina hala eta guztiz ere, prestigioa eman nahian, izenak euskaraz ipintzen ziren. Ikus daitekeenez, horrelako auzoetan nolabaiteko kontraesana daukagu eta horregatik ere sortu dugu *euskararen ibilbidea*.

«Getxo duela gutxi hasi da erdalduntzen; orain arte euskalduna izan da»

—Herritarrek ba al dakite haien herriko historiak?

—Nik uste dut informazio gutxi dagoela eta Getxok daukan historia nahiko inportantea eta mamitsua da. Gehiago jakin beharko genuke.

—Ibilbideak ikasleei zuzenduta daude, helduentzat egingo al da inoiz?

—Ez dakigu. Momentuz proiektu “pilotoa” da. Lehenengoz pentsatu dugu eskola mailari bideratzea, eskoletako lehenengo zikloetakoei dago zuzendua, sei urtetik hamabi urte bitartekoentzat. Gero, ez nago guztiz ziur proiektu hau, Toponimia Ibilbideak, euskaltegiei ere zuzendu zaien. Orduan, gura duguna da proiektua umekaz hastea eta nola funtzionatzen duen ikusi eta behin hori aztertuta, harrera ona baldin badauka, beste publiko bati zabalduko genioke. Baina esan bezala, proiektu “pilotoa” da eta ez dakigu hortik aurrera zer egingo den. ○

APELLIDUAK ABIZENDU!!!!

Zure izena edo abizena
euskarazko grafiaz
jarri gura duzu?

ERRAZERRAZA DAI

5 euroren truke.

ARGIBIDEAK

ASISORIS AIZPURA AHOKULARITZA ETXEA
Tel: 944509480

ASISORIS PREMIUM AHOKULARITZA ETXEA
Tel: 944502241

ASISORIA CONSULTORIA IBI GONELA AHOKULARITZATXEA
Tel: 94428608

ASISORIA ZUBIETA AHOKULARITZA ETXEA
Tel: 944540322

ASISORIS GALER AHOKULARITZA ETXEA
Tel: 944509932

GESTORIA URALDE GESTORIA (ARBITA)
Tel: 944540322

IBERKO (ARBITA) AHOKULARITZA ETXEA
Tel: 944500294

ASISORIS SATEL AHOKULARITZA ETXEA
Tel: 944507049

ASISORIA GESTORIA PABLO L. & URALDE S.L.
AHOKULARITZA ETXEA eta GESTORIA
Tel: 944505540

GESTORIA ARGANAZ ANTUÑANO GESTORIA
Tel: 944500487



ERANDION
berba lagun

Ikasten dabilzanekin berba egiteko...
...ordu bete astean, bai?
Euskalduna bazara, emaiezu laguntza; eskertuko dizute-ta!

ANIMA ZAITEZ!!

Tel.: 94 467 27 61 (10:00am-10:00pm)
658 70 93 32 (Leira)
e-maila: berbaia@gmail.com
helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Alizaga

ERANDION ELIZATENO LEIALA
Ayuntamiento de la Antigua de Erandion





Getxoko Batzokia

Poltsiko guztientzako menuak



Javier Gorroño eta bere lan taldea jatetxearen atarian

Orain dela sei urte hartu zuen Javier Gorroño Getxoko Batzokiko Jatetxea. Aurretik, La Galea Hipikako jantokia eraman zuen. Gaur egun, Murueta inguruan (Busturia) daukan jatetxearekin batera gobernatzen du Getxokoa. Andra Mariko auzokideak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Gorroño eta badaki jendeak zer duen gustuko. Barruko jantoki zabalaz gain, orain dela gutxi berritutako terrazza dauka Getxoko Batzokiak: *“Umeein etxetik kanpo bazkaldu gura duten gurasoentzat oso aproposa da; jatetxe askotan ez diete umeein egoten uzten”*. Gainera, udarako 100 pertsonatik gora hartuko dituen beirate handiz itxiatuko gunea inauguratzeko asmoa du.

Asteko zazpi egunetan zabaltzen dute, nahiz eta zapatu eta domeketan bakarrik

ematen dituzten afariak. Sei menu mota dituzte asteburuetarako. Alde batetik, kategoria ezberdineko ohiko bi menu; bestetik, itsaski-jana, indabak eta paella, hirurak oso prezio onean. Honez gain, ospakizunetarako hiru askari menu dituzte, gaueko 9ak arte ematen dituztenak, enkarguz. Ezkontza, bataio eta jaunartzetarako, bazkariak ematen dituzte, enkarguz ere bai.

Jende asko hurbiltzen da Getxoko Batzokira: *“Ingurukoak geroz eta gehiago hurbiltzen dira; afaritxo bat ospatu gura dute, ardoagaz; horrela gero ez dute kotxea hartu behar. Kolore guztietako jendea etortzen da honera, herrikoa”*. Udaberrirako, txori kantarien lehiaketa antolatu gura du Javier Gorroño. ○

Maidagan z/g GETXO / Tel.: 94 491 27 72

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jateetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak normberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa!"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaiatxo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoia izango duzu, baita zure lanean ere.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Hau marka! Beti eztabaidan zure bikotekidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez dutela ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster guztiz sendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsatzea komeniko litzazuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Zeure buruari gehiegi exijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atsean handiago hartzea. Besteren laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Zure kontra ere itzul daitezke, eta zu bakardadera bultzatu.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Emozionalki izugarriko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eramane dezakeela. Ez itzazu lagunak atzean ahaztu.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezun pertsonari azalpenak ematen hastea ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Lan egitea, kalera irtetea, lagunekin geratzea... dena ere kostatu egiten zaizu, erabat nekatuta zaude. Baliteke aspaldi honetan daramazun erritmo biziak kalteordaina pasatu izana. Lasaitasunez aurre egin betebeharrei.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nork daki? Agian, maitasuna ere piz daitezke zuon bion artean.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Ez dakit ohartu zaren baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausorik eman. Aldatu egin behar duzu. Bizitzari aurre egin behar diozu, honek zu jan baino lehen.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Lehenengo begiradan irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak izango dira gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara.</p>


mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Ontziola.
2. Lore-baratzeak.
3. Ipar, pindar, txinpart. Bizkaieraz, zama. Bokala.
4. Banako baten garapen, enbrioia den bitartean.
5. Nauka. Denbora-tarte. Kanpo.
6. Asiako hego-ekialdeko estatua.
7. Zimikoaren hasiera. Norat atzizkia. Alkoholen bukaera.
8. Euskal bandera. Bokala.
9. Aho, kontsonanterik gabe. Gipuzkoako herria. Zoru.
10. Itsas mapa. Ogi.

Goitik behera

1. Olioia edukitzeko ontziak.
2. Nonahikoa.
3. Erabiltzeko era. Bokala. Kontsonantea.
4. Baxenabarreko herria, Garazin. Irrati hitz elkartzeetan.
5. Idi, hitz elkartzeetan. Gelako zerbitzaria.
6. Zentzumenez kanpoko komunikazioa.
7. Egongo. Kontsonantea. Kontsonantea.
8. Ekialdean, gara. Joan dadila.
9. Kasik. Alor. Oinarrizko edari.
10. Garbizaleen kafea. Jardun.

Soluzioak

I	R	A	V	G	A	T	H	K	A	R
R	U	L	A	V	A	O	V	A	O	V
A	V	N	I	R	U	K	I	K	I	K
L	O	T	R	A	T	I	Z	I	Z	I
A	I	D	N	A	L	A	H	A	H	A
T	A	T	E	P	E	N	A	K	A	K
S	I	N	E	S	E	G	O	N	T	O
E	R	L	O	R	E	R	O	N	A	R
A	K	E	G	I	A	K	A	R	O	A
G	I	A	T	E	G	I	A	K	A	R

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Elgoibarko semea
- Politikaria
- Giltzapean bizi da aspaldian

> Aurrekoaren erantzuna: Oier Mendiluze

> Irabazlea: **Aitor Bilbao** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



JULIO GONZALEZ ETXEANDIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Areetako San Agustin Ikastetxea, 1961-62

Maximo Agirre kalean, gaur egun Santa Ana eliza berria dagoen leku berean, Bastero familiaren San Agustin ikastetxe pribatua zegoen aspaldian. Antonio Bastero zen zuzendaria eta Luis Ezkurdia ikasketa-burua.

Saskibaloira jokatzeko patioan aterata dago argazkia, seguru asko oso ezaguna zen Errazkin argazkilariak egina. Maisuarekin batera azaltzen diren haurrak 9-10 urte zeuzkaten orduan eta "Grado Elemental" deitzen zen maila egiten zebiltzan. Antza denez (eta garai hartan nahiko arrunta zen) "opariak" banatzea gustuko zuen gure argazkiko maisuak eta oso trebea ei zen zarta edo "varita" erabiltzeko orduan.

Areetatik eta Getxokotik ezezik, Uribe Kosta osotik eta Ezkerraldeetik ere joaten ziren mutikoak San Agustinerara ikastera, trenaz, bizikletaz zein oinez. o

Goian: Barrado, Ituiño (GB), Gonzalez, Cadierno, ?, Muela, Egia, Herrera, Saez, Garcia, Agirre.

Erdian: Navarro, Barandica, Andollo, Aparicio, Aretxabala, Solupe, Arzubiaga, Basozabal, Morales, Muro, Tomas Parra maisua.

Behean: Ubeda, Mendez, Agirre, Larrañaga, ?, Arostegi, Corbeira, Gerrikagoitia, Juantxin (GB), Juarez.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

NAROA ITURRI > kazetaria

“Nahiago ditut gaur egun borrokan dihardutenak iraganekoak baino”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Pertsona irekia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez nuke protagonista izan nahi filme batean ere. Uste dut nire aktore puntua ez dela batere ona.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Galdera horretan Che edo Lady Di bezalakoak erantzutea da ohikoena. Nik nahiago ditut gaur egun borrokan diharduten pertsonak iraganeko edozein baino.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Hainbeste... erretzea adibidez.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Leku askotan izan naiz eta leku guztietara joango nintzateke berrira. Baina beti pentsatzen dut mundua hain zabala izanik ezin dela leku guzti horiek berrira bisitatu.

Zein da zure ametsetako bat?

Euskal Herria aske ikustea.

Irakurri duzun azken liburua?

Los nuevos bascones.

Ikusi duzun azken filma?

Aspaldian ez noa zinera... azkena... *Juno*.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Lagunik gabe.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Asko daude baina nik nirera botako dut beti: Hernani.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Faltsukeria. ○

“Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

...kopia bat eskuratu...

*...nahi baduzu
“uk@aldizkaria.biz”
helbidera mail bat
idatzi.*

*20 ale dauzkagu
UK-ko harpidedunen
artean banatzeko*



LABURREAN— Hernaniarra, 31 urte ditu. ETBko aurpegi ezagunenetakoa da; ETB 1eko *Horrelakoa da bizitza* saioan Andoni Aizpuru, Agustin Ezenarro, Itxaso Martin, Joseba Olagarai eta Iban Garategaz batera dihardu gaur egun. Bertan, gazte, guraso eta irakasleei zuzendutako gaiak jorratzen ditu; gizarte gaietan sakondu eta aktualitateari errepasotxo egiten diote elkarrizketa eta solasaldien bitartez. Programa honetan ibili baino lehen, *Ikusgela* eta *Sut&Blai* bezalako saioetan ibilia da Naroa Iturri.



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37